

## Trafalgarko lurmuturra.

Trafalgarko lurmuturra, Konil eta Barbate arteko golkoan sartzen da itsasora. Monumentu natural hau, uharte harritsu txiki batez eta bi legoa neurtzen dituen haiesko formazio batez osatuta dago.

Paisaia lanbrotsu eta lasai hauek osatzen dituzten itsas labarrek, gertaera gatazkatsu baten oroimenak gordetzen dituzte.

Roche deritzon dorreak, itsasargi bilakatu haurretik, gudara zihoazen ontziak ikusi zituen. 1805 eko urriaren 21eko gauean, ekaitz gogor baten artean, gudu erabakior bat jaso zen, Frantzia eta España aliatuen eta ingalaterraren artean.

Amorru borrokatu ziren eta milaka marinela hil ziren. Armada Frantziar espagnolak gudua galdu zuen eta Nelson almirante ingelesak gudua irabazi zuen baina hil egin zen.

Aliatuen ontzidiaren ia erdia Kadizko itsasertzaren ondoan bukatu zuen gau horren ondorioz. Aste oso bat iraun zuen ekaitzak eta erdi apurtuak zeuden ontziak ondoratu zituen.

Garai batean izugarrizko gerra hontziak izan zirenak gaur egun ur aspian daude lo, hondakin hauek algek eta koralek kolonizatu dituzte. Kainoien metal gogorak itsaroten daude leku honetan, zientzilariek atera ditzaten, historiaren "utzune guztiak" betetzeko.

Hau ez da ordea itsasertz hauek gordetzen duten gudu historia bakarra. Gune hau suntsitua eta arpilatua izan da mendeetan zehar.

Gaztelu eta dorre sistema bat eraiki zen, sua eta kea erabiltzen zuen mintzaira baten bitartez piraten presentziaren berri emateko. Horrela almadrabetan, atunaren arrantzan zebiltzan arrantzaleak defendatzen ziren.

Itsasertz honen historia bortitza alde batera utziz, itsaspeko bizidunek bere aberastasun guztiak erakusten dizkigute gure begien haurrean.

Cerithusek bere erro multzo handiak gordetzeko hodiak eraikitzen dituzte. Ur sakon eta lasaien adierazle dira.

Argiarengandik babestuta Dendrophilya delikatua aurkitzen da, hain da ahula ze ukitu batek hil egin dezake.

Cnidarioak dira, landare harrigarri hauek, koralak bezala, substratuari eutsita bizi daitezke edo, marmokak bezala, uretan igerian.

Gorgoniak ere antzerako animaliak dira. Itxuran, gordetzen duten lasaitasunak eta dituzten mugimendu hipnotikoen, ase hezintazun izugarri bat gordetzen dute. Itsasoaren korronteen menpe dauden milioika eta milioika mikro-organismoak, harrapakin erraza dira Gorgoniaren digeritza aparatuarentzat, bizidun honk bere arrametan dituen ehunka ahok uretan dagoen janaria jasotzen baitute. Bina bere koloreen edertasunak eta zuhaixka itsura bereziak ez digute ahaztu behar bere hazte prozesu geldoak gure errespetua merezi duela.